

Herritar estimatuak:

Dagoeneko herritar asko jakinaren gainean dira Amezketako Zumadi eskolan irakasle batek positibo eman duela Covid-19an. Egoera honek, normala den bezala, kezka sortu du Zumadi eskolako hezkuntza komunitatean, eta ezinbestean, herrian ere bai.

Goizean zehar Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkariekin eta Zumadi eskolako zuzendariarekin harremanetan jarri naiz eta gaur eguerdian **hezkuntza sailak ikasturtearen hasiera Amezketan Irailaren 14ra atzeratzea erabaki duela jakinarazten dizuet.**

Egoera honen aurrean, Alkate naizenez, eta Udalaren izenean ondorengoa adierazi nahi dut:

- Lehenik eta behin nire elkartasunik beroena helarazi nahi diot positibo eman duen irakasleari eta Zumadi eskolako hezkuntza komunitate osoari.

- Zumadi eskolaren mantenua eta garbiketa Amezketako Udalaren eskumena izanik, joan zen astelehenean Alkateordea eta ni neu eskolako zuzendaritzarekin elkartu ginen eta eskolako garbiketa areagotzeko neurriak adostu genituen Hezkuntza Sailak ikasturte berrirako ezarritako protokolo eta jardunbideak konplitzeko.

- Egoera honen aurrean, gaur bertan eskola desinfektatzeko agindua eman dut. Bide batez, kaleetako desinfekzioa areagotzeko agindua ere eman dut.

- Amezketako Udalak Hezkuntza Saileko arduradunekin eta eskolako zuzendaritzarekin harremanetan jarraituko du egoera hau elkarlanean gainditzeko eta behar den laguntza emateko.

Azken hilabeteetan hainbat alditan elkar zaindu dezagula esan dizuet eta amezketar guztiei erantzukizunez ere joka dezazuela ere eskatu nahi dizuet.

Agur bero bat,

Amezketan, 2020ko irailaren 4an.

Izpta: IÑAKI AMUNDARAIN TOLOSA

Alkateak.

